

## **KOSTUEN EGITURA**

Enpresan ditugun kostuak hainbat dira, kostu finkoak eta aldakorrak enpresa guztietan daude. Gure enpresan, adibidez, arropa egiteko oihalak erosi behar ditugu, alokairu bat ordaindu behar dugu, hainbat makina arropak egiteko, hau da, kapital handia izan behar dugu, langileen soldatak besteak beste eta publizitatea ere egin behar dugu eta horrek zenbait kostu dakartza. Denborarekin gero eta gehiago saltzean kostuen kopurua murrizten joango gara. Egia da produktuak egiteko ia baliabide berdinak erabiliko ditugula beti.

**Web diseinua:** Web diseinua pertsonalizatua izango da. Informatikoak kontratatuko ditugu, web orrialdeaz arduratuko direnak.

**Irudiak:** gure enpresa hasiera batean on-line bidez izango denez eta denda fisikoa momentuz ez dugunez izango, web orrialdeko irudiak ondo prestatu eta zaindu beharko ditugu jendeak bestela ezin izango duelako jakin gure arropa benetan nolakoa den eta nola geratzen den.

**Ordainketa moduak:** Gure enpresak hainbat ordainketa modu ditu bezeroaren zerbitzua errazteko.

**Ofizina:** Enpresak, denda fisikorik izango ez duenik ofizina batean egingo dugu lan.

**Ordenagailuak:** Lan egiteko, ordenagailuak gure tresna printzipalak izango dira web orrialdeetik arropa salduko dugulako.

**Beste gastuak:** Enpresak izango dituen beste gastuak informatikoak, modeloak, energia eta Correos izango dira.

Ofizina	1	500€
Soldata	7	1200€/1
Ordenagailua	5	6745€
Beste gastuak (energia..)	x	300€